



Agindua, 2021eko martxoaren 8koa, Osasuneko sailburuarena; horren bidez, Osasun Sailaren 2021. ekitaldirako diru-laguntzen plan estrategikoa onartzen da.

Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoko zuzendariaren 01/15 zenbakiko zirkularrari jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Sail guztiek, bai eta haren erakunde autonomoek eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoek ere, diruz lagun daitezkeen programak sustatzen dituztenek, plan estrategiko bat onartu beharko dute, eta, bertan, diruz lagun daitezkeen jarduera osoa sartu beharko da, aipatu zirkularreko 1. eranskinean eta ondorengo 2., 3. eta 4. eranskinetan onartutako eredu-gidaren arabera. Horretarako, kontuan hartu beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren programetako aurrekontu-memoretan jasotako helburuak, ekintzak eta adierazleak.

Hori, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrak (azaroaren 17ko 38/2003 Legeak) 8.1. artikuluan xedatzen duena betetzeko.

Apirilaren 11ko 80/2017 Dekretuak (Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak) 4.1. artikuluan xedatzen duenaren arabera, Osasun Saileko sailburuari dagokio Jaurlaritzari buruzko Legearen (ekainaren 30eko 7/1981 Legearen) 26.4. artikuluan ezarritako eskumenak erabiltzea, baita Osasun Sailari dagozkion jardun-arloen eta egitekoen eremuan indarrean dagoen legediak esleitzen dizkionak ere. Horien artean dago, hain zuzen ere, bere saileko gaien gainean ebazpenak emateko ahalmena, aipatu Jaurlaritzari buruzko Legeak aitortzen diona.

Ahalmen horiek baliatuz idatzi da Agindu hau, kontuan hartuta urriaren 1eko 40/2015 Legearen (Sektore Publikoko Araubide Juridikoarena) 8.1. artikuluan eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) 128. artikuluan arau-mailari eta eskumenari buruz aurreikusitako arauak, Jaurlaritzari buruzko Legeak (ekainaren 30eko 7/1981 Legeak) 26.4. artikuluan ezarritakoarekin lotuta.

Hori guztia dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Osasun Sailaren 2021. ekitaldirako diru-laguntzen plan estrategikoa onartzea; plan horren edukia agindu honekin batera atxikitako dokumentuak jasotzen dituen eranskinetan agertzen dena da:

- I. eranskina.- Osasun Sailaren 2021. ekitaldirako diru-laguntzen plan estrategikoaren eduki orokorra.
- II. eranskina.- Ardatz estrategikoak eta diruz lagun daitezkeen lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak.



- III. eranskina.- Ardatz estrategikoak eta diruz lagun daitezkeen lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantziatio-portzentajea, finantziatio publiko osoaren aldean
- IV. eranskina.- Ardatz estrategikoak eta diruz lagun daitezkeen lerroak: Diru-laguntza jaso dezake(t)en sektorea(k) eta laguntza emateko prozedura.

Bigarrena.- Onartutako diru-laguntzen plan estrategikoan sartzen dira Osasun Sailaren 2021. ekitaldirako diru-laguntzak, Saileko honako organo hauek kudeatuak:

- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza.
- Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritza.
- Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritza.

Hirugarrena.- Osasun Sailaren 2021. ekitaldirako diru-laguntzen plan estrategikoa Osasun Sailaren politika planifikatzeko tresna da, eta diru-laguntzak emanez osasuna sustatzea du xede.

Laugarrena.- Osasun Sailaren 2021. ekitaldirako diru-laguntzen plan estrategikoa egiteko, lortu nahi diren interes publikoak aztertu dira, eta interes horiek planaren indarraldian horretarako eskuragarri dauden baliabideekin egiaztatu dira. Hala, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea bermatuko da, gure jarduera-eremuko gardentasuna indartu ahala.

Bosgarrena.- Onartutako planak izaera programatikoa dauka, hau da, bere edukiak ez du eskubiderik eta betebeharririk sortzen, eta laguntza-lerroak martxan jartzean egongo da indarrean, ekitaldi bakoitzean eskuragarri dagoen aurrekontuaren arabera, besteak beste.

Seigarrena.- Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzari agintzea agindu hau jakinaraz diezaiela saileko organoei, hura betearaz dezaten, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, jakinaren gainean egon dadin.

Zazpigarrena.- Agindu hau Osasun Sailaren egoitza elektronikoan argitaratu dadila agintzea, prozeduraren gaineko interesa eduki dezaketen pertsona guztiak jakinaren gainean egon daitezen.

Zortzigarrena.- Agindu honek sinatzen den egunetik aurrera izango ditu ondoreak.

Bederatzigarrena.- Agindu honek Administrazio-bidea agortzen du. Zuzenean aginduaren aurka jo ahalko da. Horretarako, administrazioarekiko auzien errekurtoa jarri ahalko da, bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; edo berraztertze aukerako errekurtoa jarri ahalko da, Osasuneko sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, aipatutako zenbaketa-arau beraren arabera.



Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 8.

Osasuneko sailburua,
Miren Gotzone SAGARDUI GOIKOETXEA